



ALEA

arabako aldizkaria



EUSKARABENTURA

**ARABAKO LURRAK 'PIZTU' DITU
EUSKARAREN ESPEDIZIOAK**



BALIABIDE ESKASEKO PENTSIODUNENTZAKO

laguntzak argindarra, gasa
eta berokuntza ordaintzeko



**Eskabideak
irailaren 5era arte**

info+: vitoria-gasteiz.org :: **Herritarrei laguntzeko bulegoak**





ALEA 202

2019-07-19 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
EUSKARABENTURA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Euskarabentura.
- 8 **Protagonista.** Enrique Etxazarra, ikertzailea.
- 14 **Iritzia.** Josune Velez de Mendizabal, 'Nagieria versus begetala'.
- 16 **Sarean.** #MarianoFerrer.
- 17 **Iruditán.** Gasteizko Ironmana, Eneko Llanos eta Heather Jacksonentzat.
- 18 **Gizarte.** Errefuxiatuentzako zentroa irekiko dute Langraiz Okan.
- 20 **Kirola.** Beti Aurrerako gimnastak, Moskura bidean.
- 21 **Gizarte.** Pobesko zahar-etxea, kudeatzailerik gabe.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Arte.** Landa eta hiri eremua lotzeko saio artistikoak.
- 25 **Jaiak.** Santiago egunean, nekazal azoka.
- 26 **Teknologia.** Larraitx Amadoz, 'Osasuna aztergai'.
- 27 **Gure bazterrak.** Bergonda.
- 28 **Denbora-pasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Josune Velez de Mendizabal eta Larraitx Amadoz.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Tribu ehiztari, ibiltzaile eta nomadaren bila

Donejakue ibilbidea Euskal Herritik igarotzen diren tartear egiten dabilta 150 lagun, Euskarabentura egitasmoaren barruan; denera, 798 kilometro. Uztaila osoa emango dute erronka horretan. Arabara pasa den ostiralean heldu ziren, eta bertan lau egun igaro ostean, Gipuzkoarantz jo zuten astelehenean. Testua: **Mirian Biteri**. Argazkiak: **Euskarabentura**.



Araba atzean utzita, bidean aurrera jarraitzen dute EuskarAbenturan parte hartzen ari diren *jzioquitarrek*; kilometro asko dituzte oraindik aurretik, uztailearen 31n, Getxora heldu arte. Uztailearen 1ean Maulen ekin zioten 798 kilometroko ibilbideari, eta hamaika egun beranduago Arabara sartu ziren. Oinezko kilometrorik gabeko eguna izan zen hori. Goizean, Donemiliaga Kukulako Yuso monasterioa bisitatu zuten, EuskarAbenturaren leloa eta *jzioquitarren* beraien izenaren zergatia ikasten; bertan daukate gordeta orain arte aurkitutako euskarazko esaldi idatzi zaharrenak jasotzen dituen eskuizkribuaren erreplika: *Jzioqui dugu guc ajutu ez dugu*. Jarraian, autobusez egin zuten Gesaltza-Añanaraino bidea.

Gaua bertan pasa ostean, egunero bezala, 07:00etan jaiki eta gosalduta eta dena jaso ostean, Argantzonerara abiatu ziren. Ohikoa den moduan, hiru taldetan banatu ziren: *trikuak* edo bere burua mantoen ikusten dutenak izan ziren lehenak irteten; handik 10 minutura, *kattagorriak*; eta azkenik, *erbiak*. Modu horretan, zailtasunaren arabera gorritz, laranja edo horiz bereizita dituzten etapa amaierara denak batera heltzea lortzen dute.

Eguerdia partean heldu ziren Trebiñuko herrira. Eguzkiak gogor jotzen zuen, eta heldu bezain pronto errekan bainu freskagarria





Etapak amaitzean, ekintza osagarriak egiten dituzte; goian, Gesaltza-Añanako gatzageta egindako bisita.

EUSKARABENTURA

hartu zuten. ALEak bertan zuen beraiekin hitzordua eginda, abenturaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko eta protagonistekin zuzenean hitz egiteko. Nekatuta baina pozik agertu ziren guztiak.

Stockholmeko gazte bat

Komunikazio arloko Igone Mariezkurrenak azaldu du "guztia oso martxa onean" doala, eta pasa den urteko lehen edizioarekin alderatuta, "antolatuagoa" dagoela.

Horrekin lotuta, azpimarratu du *jzioquitarrak* "zoragarriak, oso jatorrak eta arduratsuak" direla:

"Talde kohesioa lortu dugu; familia bat gara, tribu ehiztari, ibiltzaile eta nomada bat". Denora, 121 gazte dira. Euskal Herriko txoko ezberdinetatik iritsitakoak guztiak, bat izan ezik: Stockholmeko neska bat ere badago abenturan parte hartzen, aita euskalduna duena eta udak Euskal Herrian pasatzen dituena.

Gazteak ez daude bakarrik; familia urdina dute ondoan. Hain justu ere, abenturaren martxa egokiaz arduratzen direnak. Lau taldetan daude banatuta horiek: logistika taldea osatzen duten bi lagun eta bi furgoneta; bi mediku eta erizain bateko osasun taldea; komunikazioaz arduratzen diren bi kazetari, kamerari eta argazkilaria bana eta Berriako bekaduna; eta sherpak edo begiraleak.

Proiektuaren programazioarekin jarraituz, Mariezkurrenak azaldu du goiza bidean eman ostean, arratsaldeetan ekintza osagarriak egiten dituztela: tailerrak edo mintegiak, eta baita bisitak ere. Guztira, 50 ekimenetik gora. Hizkuntza, soziolinguistika eta euskararekin lotutako jarduerak daude, batetik; eta bestetik, feminismoa edo ekologismoa bezalako gizarte gaiekin lotutakoak. Horrez gain, iazko eta aurtengo *jzioquitarrak* elkartzeko bi topaketa antolatu dituzte. Lehenengoa Iruñean egin zuten, eta bigarrena, Donostia eta Zarautz arteko etapan egingo dute. "Gazte euskaldunen sare bat eratzea eta mantentzea dute horiek helburu".

Araban, guztira, lau egun egin zituen tribuak, Gesaltza-Añanan, Argantzonen, Gasteizen eta Araian geldiuneak eginaz. Handik, Aizkorri-Aratetik barrena, Gipuzkoarantz abiatu ziren uztailaren 15ean. Jarraitu dezatela orain arte bezain gogotsu. ■■■



"Euskaraz hitz egitera ohitu gara"

NAHIA LOPEZ ETA GARAZI GIL JZIOQUITARRAK

Ezin hobeto dabilta bi gasteiztarak. Esperientzia "oso polita" bizitzen ari direla diote, Euskal Herria ezagutzearekin batera, lagun asko egiteko aukera izan dutelako. Garaziren esanetan, gainera, "oso aberasgarria ere bada euskalki asko daudelako nahastuta". Horrekin lotuta, Nahiak esan du dagoeneko euskaraz hitz egiteko ohitura hartu duela, "Gasteizen egiteko aukera ez duena".



M.B.

Euskaraz hitz egitera ohitzeaz gain, abenturaren "ohiko errutinetara" ere ohitu direla aipatu dute, eta etxera itzultzean, horiek faltan botako dituztela uste dute.



M.B.

"Lan asko dago abenturan"

LEIRE GAINZARAIN
ERIZAINA

Bigarrenez parte hartzen ari da andoaindarra abenturan, erizain moduan: "Erizaina banaiz ere, ez dut ospitaletan sartu nahi, eta Interneten begiratuta, proiektu honetarako lan eskaintza topatu nuen iaz. Oso gustura ibili nintzenez, errepikatu dut", adierazi du.

Bertan, "jendeak uste baino lan gehiago" dagoela dio; bereziki, oinen zainketarekin lotutakoak dira, baina baita intsolazioak, gainkargak eta nekea ere. Prebentzioa "ezinbestekoa" dela dio: tartean, hidratazioa, eguzkitako kremak eta elikadura egokia.

"Begirale lana nolakoa den ikasten nabil"

IBAI ZOBARAN SHERPA-LAGUNTZAILEA

Iaz *jzioquitar* bezala parte hartu ostean, aurren, sherpa edo begirale-laguntzaile moduan dabil busturiarra. Begirale ikastaroa egin du, eta iaz abentura "oso gustura" amaitu eta errepikatzeko gogoia zuenez, "aukera ezin hobea" iruditu zitzaion, "lana nolakoa den ikusteko eta esperientzia hartzen joateko". Bere zeregina zehazki zertan datzan azaldu du: "Goizean,



M.B.

motxilak furgonetan sartzeaz eta dena txukun uzteaz arduratzen gara; horrez gain, sherparen bat ez dagoenean bere lana ere egiten dugu".





Misterioaren atzetik ibili izanagatik istorio harrigarri asko entzun ditu Etxazarra, lehen eskutik. J.G.

"Hasierako xalotasuna galduta ere, grina berdinarekin nabil"

ENRIQUE ETXAZARRA IKERTZAILEA ETA IDAZLEA

Ezohiko gertakarien atzean urteak eman ditu ikertzaileak, zuhurtzia lagun, baina lekukoek diotena entzuteko prest. Liburuetan eta hedabideetan kasu horiek jaso ditu, baina orain erronka berri bati ekiteko prest dago: istorio aztoragarri horiek izan diren lekuetara joan eta bisitariei zuzenean kontatu.

Testua eta argazkia: **Juanma Gallego.**

Misterioari lotutako istorioen atzetik ibili da gaztarotik Enrique Etxazarra (Gasteiz, 1970) ikertzailea eta idazlea, eta urte hauetan zehar ezusteko ugarirekin topo egin du. *Crónicas de brujería, 50 lugares mágicos del País Vasco* eta *Los 20 mejores expedientes X del País Vasco* liburuetan jaso ditu ezohiko bideak urratuta bildu dituen kasu horietako batzuk. Aspalditik hedabideetan ibilitakoa, Iker Jimenez kazetariak gidatutako *Cuarto Milenio* saioan egin da bereziki ezaguna Euskal Herritik kanpo. Saio horren inguruan ibilbide turistikoak egiteko asmoa agertu dute orain.

Misterioari buruzko ibilbideak prestatzen ari zarete. Nola sortu zen ideia hori?

Iker Jimenezek proposatu zigun kontua *Cuarto Milenio* saioko kolaboratzaileoi. Pangea izeneko agentziatik proposamen bat helarazi zioten, eta Ikerri ikuspuntua gustatu zitzaion. Bidaia baino, ideia da esperientzia bat eskainzea: ihesaldiak asteburuetan, *misterioa zure hirian* (egun bateko bisita), eta gaueko irteerak, misterioaren leku ikonikoetara, bertan gaua emateko.

Eta zein da Arabarako prestatu duzuen proposamena?

Guk momentuz bi hitzordu zehaztu ditugu, biak larunbatetan. Urriaren 5ean, Gasteizko ibilbidea egingo dugu. Urriaren 19an berriz, Gasteizko jatetxe batean afaria egingo dugu, eta gero Otxatera txangoa egingo dugu. Aurrera begira, beste ibilbide bat prestatzen ari gara, Araban eta inguruetan, asteburu batean. Otxatera joango gara ere, noski, baina asmoa da beste toki asko bisitatzea: Gasteizko Ogasuneko eraikina, Lañuko gobak, Errioxako balkoia, –Arabako ufologiaren leku mitikoa da eta–, mamuei buruzko istorioak gordetzen dituzten Errioxako hainbat jauregi edo Miranda Ebroko *El Chantre* izeneko momia; Subilla Morillasera ere joango gara, bertan Wellingtongo dukea bizi izan zen etxe batera... funtsean, *Cuarto Milenio* saiorako erreportajeak grabatu ditugun lekuetara.

Zer azalduko duzu Otxaten?

Nire ideia da bertan azaltzea zergatik Otxate bihurtu den misterioaren ikono bat; ia fenomeno soziala bihurtu da. Eta guztia kontatuko dut: batetik, bertan jazo omen diren fenomeno paranormalak, nire ikerketetan jaso ditudan testigantzetan oinarrituta. Bestetik, Otxateren inguruan sortu den kontakizuna zalantzan jartzen duten ikerketa berriak ere azalduko ditut.

Antonio Arroyo, Julio Corral eta zu zeu izan zarete hau argitu dutenak...

Bai, herriaren historian sakondu dugu, eta agiri historikoetara jo dugu. Agirietan ez da izurrite horiei buruz hitz egiten, eta argi agertzen da herria 1930eko hamarkadan arrazoi arruntengatik hustu zela. Beste kontu bat da herriaren inguruan sortu diren istorioak, fenomenoak eta... hor interpretazioak oso zabalak dira, noski, baina historia osoa kontatu behar da. Otxaten gaudela aprobetxatuta, psikofoniaren bat eskuratzen saiatuko gara ere, bisita atseginagoa egiteko edo. Ziur nago gau horretan anekdota pila bat aterako direla, herrian gertatu diren kontuei buruz.

Zure ikerketetan ikuspuntu ireki bat erakutsi ohi duzu, baina eszeptizismoa mantenduta. Nola daramazu malabarismo hori?

Badakizu eszeptiko hitza pixka bat kutsatuta dagoela, askotan eszeptikotzat hartzen baita guztia ukatzen duena; ezer sinesten ez duena. Badira hainbat elkarte jarrera horretan ari direnak. Horrelako istorio bat azaltzen den aldiro, berehala ukatzen dute, eskema logikoetan sartzen ez delako. Baina hiztegira jotzen baduzu, eszeptikoa da zalantzak agertzen dituen, gauzak zalantzan jartzen dituen. Hori da, hain zuzen, nik hartzen dudana jarrera. Zalantzak agertu bai, baina ukazioa ez. Gero gertakari horien inguruan egiten den interpretazioa norberaren esku geratuko da.

Zure bizitzan misterioarekin egin duzu topo noizbait?

Nik zuzenean ikusita... bai eta ez. Esan nahi dut, ezohiko fenomenoen testigantza pila jaso ditut, eta horietako batzuk oso fidagarriak dira. Eta lekukoek zer ikusi duten galdetzen diozu zure buruari. Zerbait arraroa bizi duen lagun batekin egotean nabaritzen duzu *feeling* antzeko bat, eta orduan badakizu ez dagoela gezurretan.

Seguruenera urte hauetan guztietan txoriburuak igartzeko 'usaimena' garatuta izango duzu....

Bai, noski, horrelako asko ere badira, baina, diozun bezala, berehala antzematen zaie. Baina badira ere asko zinez sinesgarriak direnak, eta azalpenik ez duen zerbait kontatzen dizutenak. Adibidez, ertzain batek Aiurdingo tunelean ikusi zuena lehen eskutik azaltzen dizunean...

Arren, mesedez eta faborez, kontatu hori!

Kasu oso bitxia da, eta behin eta berriz horretan pentsatu dudana arren, ez diot azalpenik aurkitzen. 1984an gertatu zen, Aiurdingo tunelean [Zuia], Bilborako norabidean. Lopidan zegoen Ertzaintzaren patruila batek kontrol-zentrotik

abisua jaso zuen, esanez tunelean zerbait beltza eta handia zegoela, eta bikote batek ia-ia istripua izan zuela horregatik. Pentsatu zuten, noski, txakur bat edo abereren bat izango zela. Baina, bertara iristean ertzainek ikusi zuten guztiz arraroa zen zerbait: hiru metro inguru izango zituen lagun bat zegoen tunelaren erdian, besoak gurutze itxuran jarrita, guztiz beltza eta sotana antzeko bat jarrita. Baten bat baldarkerietan zegoela pentsatu zuten orduan, baina segada terrorista baten aukera ere pasatu zitzaizen burutik. Autoarekin aurrera egin zuten pixkanaka, goiko errefortzu-argiak piztuta hobeto ikusteko. Orduan konturatu ziren zera horri ez zitzaiola aurpegia ikusten, ezta oinak ere, eta tunika beltz antzeko bat zuela. Armak eskuetan, autotik atera ziren ertzainak. Eta haien aurrean desagertu zen. Ez mugitu, ezta korrika atera: besterik gabe, desagertu. Zur eta lur geratu ziren. Aurrerago abisua emana zuen bikotea aurkitu zuten, Altubeko zerbitzugunean, guztiz izututa.

Argitaratu gabeko kasua zen. Nola topatu zenuen?

Egia esanda, txiripaz, beste gertakari baten atzean nenbilenean. Urduñako mendatean argi ezezagun baten jazarpena izan zuten ertzainen atzean ari nintzen, eta azkenean Jose Miguel Ahedo ertzainaren izena lortu nuen. Gaiari buruz galdetu nion, eta erantzun zidan ezetz, baina oso kontu bitxia bizi zuela Altuben. Hura sorpresa! *Cuarto Milenion* agertzea proposatu nionean, gainera, baiezkoa eman zidan, eta hor kontatu zuen guztia. Hau ez da beti horrela izaten: badira lekuko asko zuri kontatzeko prest bai baina telebistan edo beste hedabideren batean agertzeko prest ez daudenak. Ahedo erretiroan dago orain, eta hura ezagutu zutenekin hizketan ibili naizenean, kontatu didate oso lagun serioa dela. Pena da ez dagoela gertatutakoaren gaineko agiri ofizialik, istripua ez zelako gertatu. Abisua eman zuen bikote bilbotarraren berririk ez dut izan.

Zerk eraman zintuen misterioaren mundura?

Gaztea nintzela, liburutegi publikoan *Parapsikologia eta zientzia ezkutatuak* izeneko atal

"ZALANTZAK AGERTU BAI, BAINA UKAZIOA, EZ. HORI DA NIRETZAT BENETAN ESZEPTIKOA IZATEA"

"ZURI KONTATU BAI BAINA TELEBISTAN AGERTZEKO PREST EZ DAUDEN LEKUKO ASKO ERE BADIRA"

batekin topo egin nuen behin, eta guztiz liluratuta geratu nintzen. Bertan kontatzen zirenak albigestegietan zergatik ez ziren agertzen galdetzen nion nire buruari. Garai horretan, gainera, liburuetan agertzen zen guztia halabeharrez benetakoa izan behar zela pentsatzen nuen. Auzoko lagun batzuekin kasuak ikertzen hasi nintzen. Kurioso da, gutxi gorabehera garai horretan Iker Jimenez izeneko beste gazte bat Gasteizko kaleetan zebilelako ikertzen, baina ez genuen elkar topo egin. Berak Madrilera jo zuen gero, *Enigmas* aldizkarirako Otxateri buruzko erreportaje bat prestatzen ari zenean izan nuen berarekin lehen harremana.

Eta, ordudanik, misterioan mantendu zara...

Bai, nolabait esatearren, garai horietako xalotasuna edo sineskortasuna galdu dut agian, baina grina berdinarekin jarraitzen dut misterioari lotuta. Emazteak askotan galdetzen dit ea ez nagoen aspertuta horrekin; badakizu, beti handik-hona ibiltzeaz, kasuak ikertzen. Ba kasuak itxura hona badu, ez, horrek ez nau aspertzen. Badakizu ez duzula mamurik topatuko, baina misterioaren atzean ibiltzeak izugarri interesgarri diren lekuen ateak irekitzen dizkizu ere: jauregiak, gatzeluak... historia zuzenean ikusten duzu. Adibidez, Andresito mamuaren istorioari jarraiki, San Frantzisko komentuari historiarekin topo egin nuen, eta hor atzean dagoena ere izugarri interesgarria da. Duela gutxira arte gasteiztar gehienek ere ez zuten ezagutzen.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ



'Cuarto Milenio' saioko kolaboratzailea da Etxazarra, eta hara sona handiko kasuak eraman ditu. MEDIASET

Asko aldatu al da ikertzeko modua?

Funtsean berdina da, baina modu zabalagoan egiteko aukerarekin. Kontu handiz ibili beharra dago, batez ere sare sozialen eta internet bidez iruzurrak azkar zabaltzen direlako, baina sareak oso erabilgarriak dira. Esaterako, horiei esker lortu nuen kasu mitiko baten lekukoak aurkitzea. 1978an gertatu zen, Bilboko aireportutik gertu. Aviaco konpainiako hegazkin bat hodei batean sartu zenean, hegazkineko gailu guztiak erotu ziren, iparrorratza izan ezik. Hodeitik ateratzean konturatu ziren ohikoa baino erregai gehiago kontsumitua zutela. Facebook bitartez hasita, gainkarguaren kontaktua lortu nuen, eta, honen bitartez, pilotuetako baten telefonoa. Oso abegitsua izan zen, eta benetan zer gertatu zen kontatu zidan. Esan zidan lehen aldia zela 40

urtetan norbaitek berari galdetzen ziona. Jende pila batek idatzi du kasuari buruz, batek besteari kopiatuta, eta izugarri puztu zen guztia. Halere, berretsi zidan egun horretan gertatutakoa ez zela batere normala izan.

Sinesgarritasun handiko lekukoak dira, ezta?

Bai, eta horrelako asko dira. Adibidez, San Zadornilen (Burgos) ere gaueko hegaztiak ikertzen ari ziren bi biologok kontatu zidaten izugarrizko istorioa. Errepidearen arekan sotanaz jantzitako emakume bat ikusi zuten, ile grisa zuena, eta lumineszentzia antzeko bat zuena. Haren alboan pasatzean ez zien jaramonik egin baina handik bi minutura berriro ikusi zuten, aurrerago, eta hor beldurtu ziren. Zer zen? Ideiarik ez. Baina horrelako ezohiko gertakari bat ikusten duten pertsonekin hitz egitea zoragarria da. ■■■

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK	
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT	
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus	

Gasteizko misterioetan barrena

Hirira beste begirada batekin hurbiltzeko modua dago, misterioaren betaurrekoak jantzita, eta horixe egiteko asmoa du Etxazarrak. Santa Isabel hilerrian abiatzen da ibilbidea. Sakamantekas ehortzita dagoen hobi komunetik gertu dago ere Julian de Zulueta esklabistaren mausoleoa, eta horren inguruan sortu da hiri kondaira bat: hilobiaren gainean dagoen aingeruaren besoak seinalatzen badio, astebete barru hiltzeko zorian egon daiteke bisitari gixajoa. "Jendeak kondaira hori ezagutzen du, baina ez Zuluetaen istorioa, eta hori ere zinez interesgarria da", dio Etxazarrak. Alde Zaharreko Hedegile kalera hurbilduta, Iker Jimenezen gaztaroari erreparatuko diote. "1980ko hamarkadari buruz hitz egingo dugu. Garai horretan Objektu Hegalari Ezezagun asko ikusi ziren Gasteizen, eta horren berri ematen zuten *La Gaceta del Norte* bezalako egunkarietan. Iker Jimenez gaztea OHE horien atzean ibili zen. Hurrengo jomuga Goiuri jauregia da, bertan mamuei buruzko istorio interesgarri bat dagoelako. "Birmoldatze lanak egin zituztenean isolatuta zegoen hilobi bat aurkitu zuen, eta horren inguruan ere istorio bat eratu da". Jauregia ireki zenean hasi zen komentatzen neska bat agertzen zela jauregian. "Arkeologoekin hitz egin dut, eta berretsi dute bertan testuinguru argirik gabeko hilobi bat agertu zela.



Hiri kondaira eratu da Julian de Zuluetaen mausoleoaren inguruan. ALEA

Baina hor ere San Miguel elizaren atzeko aldea bazegoen, eta seguruenera hilobiratze arrunta izango zen". Dena dela –hortxe hiri kondairen magia–, mamuaren istorioa abiatu zen. "Bere garaian funtzionarioei galdezka ibili nintzen, baina ez nuen testigantzarik aurkitu. Ordutegi arruntetik kanpo bertan egoteko aukera izan nuen ere, baina ez nuen ezer arrarorik sumatu". San Miguelen alboan dagoela aprobetxatuz, XIX. mendean izandako gertakari bitxiak ekarriko dituzte gogora. "1897ko martxoan, *El anunciador vitoriano* egunkarian agertzen da gaiari buruzko kronika sorta bat. Kontua da Andetxaren inguruan argi arraro bat ikusten

SAN MIGUEL ELIZAN
BILTZEN ZIREN
GASTEIZTARRAK, ARG
BITXI BAT IKUSTEKO

zela; ez zeruan, lurraren arrasean baizik. Argia jendearen atzetik zebilen, eta etxeetan sartzen saiatzen omen zen, jendea izutuz. Egunkarian jasotzen da nola San Miguelgo dorrearen kanpandorretik ikusten zen fenomeno bitxi hura". Egunkarian bertan azalpen logikoa aurkitzen saiatu ziren arren, ez zioten aurkitu. "Jendeak uste zuen arima herratua, deabrua edo iratxo bat zela". Adatseko Andre Mariaren kalea bisitatuko dute amaieran, aspaldiko madarikazio bati buruz hitz egiteko, baina aurretik Plaza Berritik ere igaroko dira, bertan 1936an Kondor Legioko hegazkin batek lurra jo zuelako, eta gaiaren bueltan ere espekulazio ugari osatu direlako. "Askotan esan ohi da ez dagoela misterio-istorio onik naziak nonbaiten azaltzen ez badira. Bada, Gasteizen naziak biltzen dituen istorio on bat ere badaukagu".

ESKAINTZA PAREGABEA

ETA FUNDAMENTU HANDIKOA



SAMSUNG GALAXY

KIN

SAMSUNG GALAXY A20e HAU

0€

HAUEK KONTRATATUZ

10GB ESTRA / HIL

x

6€ / HIL



SAMSUNG GALAXY

KON

SAMSUNG GALAXY A50 HAU

0€

HAUEK KONTRATATUZ

20GB ESTRA / HIL

x

12€ / HIL



KONTRATATU HEMEN:
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 1717



euskaltel

Euskaltelen Zuntzako bezero berrientzat edo bezero badienentzat, baldin eta 10 GB-ko edo 20 GB-ko bonu gehigarri bat hilean eta 24 kuotatan ordaintzeko modalitatean smartphone bat kontratatzen badituzte: 2019/07/31 arte edo irakinak agortu arte baliu du (10.000 arte); 24 hilabeteko deskontu eskusiboa edukiko duzu, 24 hilabeteko itzupen-konpromisoaren truke. Prezioetan sartuta daude BEZA eta kanon digitalak. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:



Nagikeria vs begetala



JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL

AKTOREA

Zalantzatia naizen heinean, erabakiak hartzea kostatzen zait. Edozein, ez transzendentalak soilik, baita egunerokoak ere. Azken hauek ez dira oso garrantzitsuak baina hortxe ibili ohi naiz nire nahi/desio *versus* beharra/premia, borrokan. Niri buruari bakarrik zor diodan egiari men. Udan gainera ekuazioa korapilatsuagoa da, tartean nagikeria dagoelako. Alpertxo bilakatzen naiz beroarekin (Berorik gabe akaso nagia ere banaiz, baina gutxiago nabaritzen zait. Testatu beharko. Gizakiok nagiak gara izatez).

Hara alperkeriaren adibidea. Oporretan, eguraldia lagun, igerilekura joaten naizen egun hauetan bazkaria prest eramaten dut. Ez beti, ordea. Aurrekoan, bertan erosiko dut, esan nion nire buruari, jakinda hozkailuan tomateak, arrautzak, letxuga eta azenarioak entsalada eder bat egiteko zain nituela (beno, horiek bihar, bai, bihar... eginbeharra vs nagikeria, 0-1).

Entzunda nuen iazko igerilekuen kafetegi zerbitzua makala zela, ilara amaiezinak, motela, txanda-pasak eta aurreratzen zirenen arteko bronkak... beno, halere, apustu egin nuen nire nagikeria eta biok inor baino biziagoak ginela, eta 13:00ak aldera oraindik goiz zela gainontzeko gizaki geldoak bertaratzeko, eta jendetza ez zela egongo. Bingo! apustua irabazita! inor ez! (1-0)

Jakinda kamareroa niregana gerturatuko zela eta ni hurrengo izango nintzela irribarrez hartu nuen bokaten karta. Zerrenda ez zen hain luzea, izan ere batetik gaztelera zegoen eta bestetik euskaraz, hau poza. Euskaraldian hartu nuen apustuari helduz, euskaraz egingo nion. Baina lehendabizi erabaki... Haragirik ez dut nahi, begetala hartuko dut. Begetalen mundua, -bokaten diot, ez gizaki motelena- mundu zabala da ordea. Begetalak, dakizuen bezala, ortuan hazten den york urdaiazpikoa edota hegaluzea du behin baino gehiagotan.

"Egun on" esan nuen euskara perfektuan, "dime qué quieres" erantzun berak gaztelera perfektuan ere. Tira... begetala hegaluzearekin... erantzun nion bere hizkuntzan... "dime el número" berriz berak... eta kartari erreparatu nion berriri, bokatak zerrendatuta zeuden eta. 21a zen nire hautua. Bai, ezta? duda mudan berriri ere, eta konprobatzea erabaki nuen. Buelta eman kartari eta hara! Erdaraz, begetala hegaluzearekin zena, euskaraz oilo paparra ere bazuen! Oximorona ber bi. "El 21 de castellano – esan nion– que el 21 de euskara es otra cosa". Begiratu ninduen ortuan hazitako legatza ni banintz bezala... tira.. Hautua eta apustua. XXI. mendeko nagikeria vs 21 zenbakidun botaka. ■■■

**EUSKARALDIAN HARTU
NUEN APUSTUARI
HELDUZ, EUSKARAZ
EGINGO NION
KAMAREROARI...**

Uztailaren 20an Euskal Sagardo ARABA Gasteizen!



**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**



Bº Arraga, 2 / Aramaio
☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
jj.iturrieta@Yahoo.com
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es

Txooootx!



Servicio de autobus

TREBIÑU Sagardotegia

☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU




Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobus

Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683

Arabak,
arabako sagardoa!



SAREAN

@ANAMENABAR

#MarianoFerrer

Herri Irratiko zuzendariorde eta Egin egunkariko zuzendari izandakoa, joan den igandean hil zen Mariano Ferrer kazetari maisua. Hedabide desberdinetan egindako jarduera oparoarekin batera, gizarte mugimenduetan ere aritutakoa izan zen, eta adierazpen askatasunaren aldeko erreferente eta ahots garrantzitsuetako bat izan zen ekarpen politikoa eginez, besteak beste, Elkarri edota 18/98+ plataformetan. ■■■



**TXEMA RMEZ.
DE LA PISCINA**
@txeramirez

Mariano Ferrer izena entzunda, bi hitz datozkit burura: konpromisoa eta maitasuna. Mila esker bizitzaren aurrean erakutsitako patxadagatik baita agintearen aurrean azaldutako ahots kritiko eta propioa izateagatik.



**IDURRE
ESKISABEL**
@idurreski

Maisua bestean hurkoa ikusten, maisua bestean hurkoa ikusarazten. Ez dut dudarik:
#MarianoFerrer gudan dago



IMANOL MAGRO
@Imagreto

Mariano, ofizioak gehien behar zintuenean joan zara. Diala triste dago gaur.
#guganbego



**ENEKO
ETXEBERRIA**
@eetxeberría

Goizero goizero, el 'Kiosko de la Rosi' entzunez esnatzen ginen gure etxean eta guretzat erreferentzia etiko handia zen Mariano Ferrer, hizkuntzaren maisua eta gizon konprometitua. Galera handia da!



**PATXI
ZABALETA**
@zabaletapatxi

Egin perodikoarekin, lehen lehen hastapenetan, Mariano Ferrer zuzendari genuela hasi ginelarik, elkartrukaturako gogoeta: "Agian Egin ez da nahikoa izango, baina bedi ezinbestekoa.



MAITE GOÑI
@euskaljakintza

Gaurko hitza "kazetari" da, zehatzago esanda: KAZETARIA (maiuskulaz eta mugatua). Mariano Ferreri eskainia, bihotzez. #guganbego

 IRUDITAN



Gasteiztarak ez du huts egin

Guztira, 2.100 kirolarik parte hartu zuten pasa den igandean Gasteizen egin zen Ironman triatloi proba gogorrean. Gizonezkoetan, Eneko Llanosek irabazi zuen lasterketa; guztira, 7 ordu, 55 minutu eta 16 segundo behar izan zituen gasteiztarak Uribarri-Ganboako urtegia 3,8 kilometro igerian ibiltzeko, bizikleta gainean 180 kilometro egiteko eta maratoi bat korrikan egiteko. Emakumezkoetan, Heather Jackson heldu zen lehena Plaza Berriko helmugara; 8 ordu, 52 minutu eta 10 segundo erabili zituen amerikarrak ibilbide berdina gauzatzeko.

Argazkia: Ironman.com



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Menesianoek ikastetxea eta aterpetxea dute Langraiz Okako eraikin handi batean. PHOT.OK

Errefuxiatuak, Langraiz Okan

70 asilo eskatzailearentzat harrera zentro berri bat zabalduko dute abuztuan, Menesianoen ikastetxean. Behin-behinean izango dira bertan errefuxiatuak, beren egoera argitzen den bitartean.

E.UGARTE LZ.DE ARKAUTE IRUÑA OKA
Langraiz Okako Menesianoen eraikinean errefuxiatuentzako harrera zentro bat zabalduko dute abuztuan, 60-70 plazarekin. CEAR Iheslariak Laguntzeko Espainiako Batzordearen esku izango da harrera, eta asiloa eskatu dutenei emango die aterpea, tramiteek iraun bitartean. Araban, Gasteiztik kanpo dagoen mota horretako zentro bakarra izango da.

Proiektua Espainiako Gobernu-ko Lan eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren eta Espainiako Kristauen Eskolen artean erdietsi dute, eta horregatik, hain zuzen ere, aukeratu egin dute Langraiz Okako Menesianoen ikastetxea aterpetxe berria kokatzeko. Madrilek finantzatzeko du zentroa, eta CEAR elkarteko talde bat izango da errefuxiatuak lagunduko dituen.

Bilera udal ordezkariekin

CEAR-Euskadiko arduradun Patricia Barcenak ALEAri azaldu dionez, errefuxiatuak artatzearen inguruko informazioa aztertzeko, Iruña Okako talde politikoeekin batzarra egin dute aste honetan. Horretan izan dira, baita ere, Espainiako Gobernu-ko Lan eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren ordezkari bat eta Menesianoen ikastetxeko arduradunak.

Barcenak argitu duenez, Langraiz Okan aterpe izango duten lagunak "askotarikoak" dira, eta duela gutxi etorri dira: "Espainiara etortzen diren lagun gehienak Hego Amerikatik datoz baina izan daitezke ere Siriatik heldutakoak edo Saharaz hegoaldekoak". Pertsona batek zentroan hiru hilabete igaro baditzake ere, irizpide teknikoek eta bere egoeraren arabera, epe hori laburtu edo luzatu ahal izango da. "Plaza bat ematen zaion bitartean egongo da zentroan. Legez, asilo

497

Errefuxiatuak artatzeko 497 plaza daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzak eskainitako azken datuen arabera. CEAR-Euskadik erakundeak jakinarazi duenez, urteko lehen bost hilabeteotan, berriz, denera, 2.075 pertsonak egin dute asilo-eskaera Euskal Autonomia Erkidegoan.



Antzinako herriko bainuetxean kokatuta dago aterpetxea. PHOT.OK

eskatzaileak dira, eta horrenbestez, lehenengo sei hilabeteetan ez dute lan egiteko baimenik. Horregatik, bitarteko ekonomikorik ez badute, horrelako zentroetan egoten dira, non oinarrizko beharrak asetuta dituzten".

Halaber, CEAR elkarteak taldeak lagunduko die ingurua ezagutzen, bizimodu berriari egokitzen eta jatorrizko herrietan jasan dituzten egoerak kudeatzeko. "Behin betiko kokapenaren zain dauden bitartean asmoa da okupaturik egotea, kultura eta aisialdia jarduerak egitea, esaterako, eta gero joango dira beste toki batzuetara, hemen Euskadin edo Espainian".

Egonaldia luzatzen bada, errefuxiatuak erroldatu ahal izango dira herrian eta umeak edo gazteak eskolatuko dituzte Menesianoen ikastetxean. Halaber, Langraiz Okako aterpean dauden bitartean, Eusko Jaurlaritzak osasun txartelak emango dizkie, asilo eskatzaile

leek doako osasun arreta izateko eskubidea ere baitute.

Errefuxiatuei laguntzeko CEAR-Euskadi erakundeak azaldu duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan, urteko lehen bost hileotan, 2.057 pertsonak egin dute asilo-eskaera; gaineratu du, egun, 930 mi-

gratzaile daudela baliabiderik gabe, Espainiako Estatuko aterpetxeren batean plaza bat noiz eskuratuko zain.

Alta, Eusko Jaurlaritzak azaldu du soilik 497 plaza dituela prest hiru herrialdeetan errefuxiatuak artatzeko.

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com



Salma Solaun, Marga Armas eta Teresa Gorospe. M. ARMAS

Beti Aurrera, Moskura bidean

Junior mailako gimnasia erritmikoko mundialean jokatu dute Salma Solaun eta Teresa Gorospe arabarrek asteburuan; historian lehenengo txapelketa izango da kategoria horretan.

ANAKOZ AMENABAR

Aurten historiako lehendabiziko gimnasia erritmikoko mundiala jokatu dute junior kategorian, eta tartean bi arabar izango dira: Salma Solaun eta Teresa Gorospe. Igandera arte izango da lehia, Moskuko Irina Viner-Usmanova pabiloian.

Beti Aurrera taldeko 14 urteko neska biak Espainiako taldean arituko dira, Lucia Gonzalez valentziarrarekin batera. Soka eta zinta ariketak egingo ditu Solaunek, pilota ariketak Gorospek, eta maza saioan parte hartuko du Gonzalezek. Beti Aurrerako zuzendari

tekniko Marga Armasek egingo ditu entrenatzaile lanak.

Asteazkenean abiatu da taldea Madriletik Moskura, ostegunean entrenamendu ofizialak izango dituzte eta ostiralean hasiko da txapelketa. Atal bakoitzeko zortzi gimnasta onenek igandeko finalean lehiatu beharko dute, eta hor erabakiko da junior kategoriako Munduko irabazlea nor den.

"Esfortzu handia"

Aurretik, nazioarteko hainbat txapelketatan –Bulgaria eta Israelen– lehiatu dira Solaun eta Gorospe, eta Espainiako taldetik marka onena egin dute gazteek; baita Espainiako junior txapelketan ere, puntako markarekin, irabazle eta irabazleorde modura. "Hemen errendimendu handiko zentrorik ez dugun arren, eta baliabide nahikorik ez izan arren, esfortzu handiz aurrera egin ahal izan dute honaino heldu arte", azaldu du Armasek, eta gazteekin batera Moskura joan ahal izatea "amets bat" dela dio entrenatzaileak. "Gogo handia dugu inauguratu berri duten pabilioia zapaldu eta saioekin hasteko; urduri eta hunkituta gaude".

Moskura abiatu aurretik, azken entrenamendua izan dute astearte goizean. "Esperientzia aberasgarria izango da; tapiza zapaltzeko irrikaz gaude".

artepan



Pobesko zahar-etxearen obrak urteak iraun ditu. PHOT.OK

Pobesko zahar-etxean zulo bat

Hilabete honetan jakin da Pobesko zahar-etxe berria kudeatu behar zuen enpresak atzera egin duela; baldintzak aldatu direla argudiatzen du eta ez dela bideragarri. Milioi bat euroko inbertsioa egin du Udalak.

ERREDAKZIOA POBES

Milioi bat euroko inbertsioa egin du Erriberagoitiko Udalak Pobesen zaharren egoitza bat eraikitzeko; inbertsioa zulo handia bilakatu daiteke, ordea, zentroa kudeatzen duen enpresa bat aurkitzen ez badute. Hilabete honetan bertan jakin da zentroaren ardura bere gain hartu zuen enpresak –Kie Gestion Consulting– atzera egin duela, eta Udalar eskatu diola kontratua elkarren arteko adostasunez ezeztatzea.

Esleipendunaren arabera, kontratua bertan behera uzteko arrazoi nagusia da plazak murriztu direla. Hasiera batean, zentroak 26 adinekorentzat tokia izan behar zuen eta eguneko zentro bat, baina azkenean etxebizitza komunitarioa izango da, eta soilik 14 la-

gunentzako tokia izango du. Gainera, zahar-etxearen kudeaketa esleitzeko lehiaketara aurkeztu den beste enpresa batek

auzi-errekurtso bat aurkeztu du, prozesuaren kontra. Finean, egitasmoaren inguruan dauden ziurgabetasunek enpresak atzera egitea bultzatu dute.

Eskumenik ez

Izan ere, aipatu arazoez gainera, EH Bilduk behin baino gehiagotan kritikatu du Udala ez zela nor zahar-etxe bat eraikitzeko eta kudeatzeko, arlo horretako eskumenak, 2012. urtetik, Diputazioak dituelako. Horrenbestez, zentro berria martxan jartzeko ardura Gizarte Ongizate Foru Erakundeari zegokion, talde abertzalearen esanetan. Alta, Diputazioak ez zuen eskaera nahikoa ikusten Pobesen zaharren etxea egiteko. Bestalde, EH Bilduk beti salatu du diru publikoarekin eraikitako egoitza enpresa pribatu baten esku uztea.

Pobesko proiektua orain dela bost urte martxan jarri zuen Udalak, eta Europako diru laguntzei esker finantzatu da. Guztira, milioi bat euro gastatu ditu Udalak horretan. Jesus Berganza EAJko alkateak defendatu du zahar-etxea beharrezkoa dela inguruko herri-tarrak artatzeko.



Lizarralde soinu
TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

ESANAK



IRATXE LOPEZ DE ABERASTURI
ARABAKO EA-KO KOORDINATZAILEA

"Praktika irregularra, antidemokratikoa eta iluna dago Eusko Alkartasuna alderdian"



KOLDO MARKINEZ
TREBIÑU SAGARDOTEGIKO ARDURADUNA

"Bestelako sagardo bat nahi duen jende asko dago; hori lortzeko lanean ari gara"



IÑIGO ZARATE
GASTEIZKO JAZZALDIKO LEHENDAKARIA

"Belaunaldi gazteak erakartzea izango da Jazzaldiak duen erronka nagusia"

ZENBAKITAN

Ikastaroak

Langabetuen lanbide birziklapena eta laneratzea errazteko, 147 ikastaro jarriko ditu eskura Arabako Aldundiak. Landunen eta, batez ere, langabetuen prestakuntza hobetzeko izango dira ikastaro horiek, 1.680 plazarekin. Ikastaroak Arabako enpresek eskatzen duten arloei buruzkoak izango dira, industria sektorea (ekoizpena, muntaketa, biltegiatzea, logistika eta abar), energia eraginkortasuna eta ingurumenari lotutakoak, batik bat. Gasteizen eta beste hainbat herritan ere eskainiko dituzte ikastaroak; Agurain, Amurrio, Oion, Ozeta edota Arespalditzan, besteak beste.

147

2,6

Milioiak

Laudioko Lamuza parkean dagoen kultura etxea zaharberritzeko, 2,6 miloi euroko inbertsioa egingo du Arabako Aldundiak. Inbertsio horri esker, teilatua eta leihoak berriztatu eta fatxadak konponduko dituzte, eta biomasaz elikatutako berotze sistema berri bat instalatuko dute. Udazkenean hasiko dira lanak, eta 2020. urtean amaituko dituzte. Lamuza jauregia hainbat eraikinek osatzen dute; 1879 eta 1930 artean eraiki ziren Urkixoko markesen egoitza izateko.

10

Urteak

Salburuko hezeguneak interpretatzeko zentroak, Atariak, hamar urte bete ditu, eta urteurrena ospatzeko hainbat jarduera berezi izan dira egun hauetan; gainera, bi zikoina zuri askatu dituzte parkeko ikur moduan, bertan baitago Arabako zikoina kolonia handiena. Urte hauetan 875.076 lagunek bisitatu dute Ataria, eta Gasteizko bioaniztasunaren erreferente bihurtu da dagoeneko, parkeak dituen ingurumen-balioak ezagutarazteko jardurekin.

Kustodia kendu diete gay izateagatik semea jipoitu zuten gurasoei

Gasteizko 2. instrukzio-epaitegiak 16 urteko semearen zaintza kendu die guraso batzuei, semeak homosexuala zela esan ostean makil batekin jo eta mehatxu egin eta gero. Tratu txar delituagatik akusatu dute aita, eta laban batekin mehatxu egiteagatik ama. Urruntze agindua jarri diete biei, eta Arabako Aldundiaren esku dago orain gaztea.



Homofobiaren kontrako elkarretaratzea egin zuten Gasteizen asteartean. LUMAGORRI



'Inpunitaterik ez' elkarretaratzea. HALA BEDI

Hizkuntza-praktiken behaketa egingo dute Gasteizko Jazzaldian

Aurten Gasteizen antolatzen diren hainbat ekitaldiren hizkuntza-praktikaren behaketa egingo dute, Bai Euskarari Elkartearen eskutik. Eta Gasteizko Jazzaldian egiten ari dira lehen neurketa, jazzaleen laguntzarekin. Erabiltzen diren hizkuntzei erreparatuko diete informazio bulegoetan, Jazzaldian zehar egingo diren ekitaldietan edota banatuko diren euskarrietan.

Gobernuaren bertsioa ukatu du Xabier Gonzalezen familiak

Apirilean Zaballan hil zen Xabier Gonzalez Garciaren (28 urte) familiak gezurtatu egin du haren heriotzaren inguruan Espainiako Gobernuak emandako bertsioa. Drogekin zerikusia izan zuela dio Gobernuak, eta "larria" dela esan du familiak, autopsia aurreko dokumentuan halakorik ez zela jaso; "eta are larriagoa informazioa ezkutatu baldin badigute".

Toponimiaren inguruko lana diruz laguntzeko akordioa sinatu dute

Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute "bi erakundeen arteko elkarlana sendotu eta hirian euskararen erabilera bultzatzeko". 63.000 euroko ekarpena egingo dio Udalak Akademiari, besteak beste, Gasteizko toponimiaren inguruko lanekin jarraitzeko; aurten, Jungitu, Zerio edota Estibaliz toponimoen deskribapenetan sakonduko dute.

impresion

Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

Molde artistiko berrien bila

Sei artista gaztek esku-hartzeak, eskulturak nahiz koreografia berriak egingo dituzte Arabako hainbat herritan eta naturgunetan. Artium museoak eta Arabako Diputazioak sustatu dute proiektua.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Eskualdea izeneko deialdi publikoaren barruan, aurtengo bigarren sei hilekoan, sei artista gaztek hainbat motako esku-hartze artistiko egingo dituzte Araban, Artium museoaren eta Arabako Diputazioaren babesarekin. "Sorkuntza-lana eta pentsamolde garaikidea Arabako gizarte osoari" hurbiltzea dute xede, ohar batean adierazi dutenez, "arte-testuinguru arabarraren garapena bultzatzeko eta landaren eta hiriaren munduen arteko erlazioen gaineko hausnarketa sustatzeko".

Un triángulo, 3 vértices ser rizoma obraren komisario lanak Leyre Goikoetxeak egin ditu, eta hiru artista arabarren lanak barne hartu ditu.

Miriam Isasik Izkiko Parke Naturalean egitekoa den esku-hartze bat proposatzen du, *Carpinteros*. Parkeko okilen ahots desberdinak grabatuz, eta behaketa eta artxiboko materiala berreskuratuz, Isasik pieza performatibo bat sortuko du –koreografia eta musika–, agertoki natural batean irudikatu eta bideoan grabatuko dena. *Memorias de azufre y sal* da, bestalde, Anabel Quincoces en proposamena. Kuartangoko Bainuetxeko ur sufretsuak eta Gatz Haraneko ur gaziak gogoan izan ditu, eta eskultura-multzo bana egingo ditu bainuetxearen kanpoan eta



Anabel Quincoces en artelan bat: 'Transmutación 11-Abisal Spaces'. GASTEIZKO UDALA

barruan; Gatz Haraneko zenbait sorotan, berriz, beirazko hainbat eskultura ipiniko dira. Belen Cerezok, azkenik, landaldeko bizimoduaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko hausnarketa bat proposatzen du, Artziniegako Museo Etnografikoan egingo duen interbentzio baten bitartez.

Norbanakoen ekoizpen artistikoei dagokionez, Raisa Alava artistak *Sin título* proiektua aurkeztu du. Zeramikazko lantegi parte-hartzailea proposatzen du Alavak, Amurrion, bere

jaioterrian. Oihane Amurriok, berriz, *El cuerpo traumatado en un espacio* proposamena prestatuko du. Bastidako herriko familiaren baratzean irudiak eta soinuak erregistratuko ditu eta solasean arituko da herriko hainbat pertsonarekin. Ekintza horiek erakusketa baten abiapuntua izango dira.

Gidaliburua da hautaturiko hirugarren proiektua, Mario Paniegorena. *Manual de instrucciones* lanaren proposamen berriak aurkeztuko ditu artista arabarrak. ■

Patxadaz hartzeko modukoa

Hilaren 25ean Santiagoko Nekazaritza Azoka egingo dute unibertsitate campusean, landa eremuan ekoizle txikiek egindako produktuak bertan erakutsi eta saltzeko. Mendialdea izango da aurtengo protagonista.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Bueltan da urteroko hitzordua, ohiko elikadura gustuko dutenentzako aproposa. Azokaren bitartez "hiri inguruko biztanleei Araban lantzen, hazten, egiten eta transformatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuen ugaritasuna eta aberastasuna" erakutsi nahi dute, Arabako Diputazioaren hitzetan. Horrez gain, landa garapenean "nekazariak eta abeltzainek duten garrantzi soziala baloratu" nahi dute.

Ohi bezala, unibertsitate campusean egingo dute azoka, 10:00etan hasita eta 14:30ak arte. Erdiko karpan, Slow Food Araba elkarteak antolatutako jarduerak bildu dituzte. Bertan bi lantegi egingo dituzte.

Horietako bat haurrei zuzenduta egongo da "Zeure gorputza, bizitzaren etxea" izenpean. Nagusiei begira, berriz, "Janari osasungarriak egiten ikasi" izeneko lantegia eskainiko dute. Goizaren amaieran, eguneko saltoki onenari saria emango diote.

Iaz lekaleei protagonismoa eman zieten arren, aurtan Mendialdea hartu dute gai berezitzat. Hala, kuadrilla horretako "produktu, tradizio eta pertsonen erakusketa"

BARAZKIAK, LEKALEAK, GAZTA, OGIA, GOZOKIAK, ALKOHOLA ETA HARAGIA SALDUKO DITUZTE AZOKAN

egingo dute, eta dastaketa ere Mendialdeko produktuekin egingo dute. Rene Cassin eta Justo Velez de Elorriaga kaleetan, berriz, azoka beraren espazioa izango da. Bertan 50 ekoizle inguruk haien produktuak salduko dituzte.

Ekologikoa

Denetarik egongo da bertan, Diputazioak produktu motaren arabeko kuotak ezartzen dituelako. Barazki eta lekaleekin batera, gazta, ogia, gozokiak, alkohola eta haragia salduko dituzte. Gehienak, nekazaritza ekologikoaren arauen arabera sortutako produktuak izango dira, foru erakundeak ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan izena emanda duten ekoizleak lehenetsi dituelako. Bestelako ekimenak ere prestatu dituzte: produktuen dastaketa, herri kirolen erakustaldia Badaioztalaldearen eskutik, "eko" saski baten zozketa eta *show cooking*-a edo sukaldaritza erakustaldi bat. Sagardoari eskainitako gunea ere izango dute, eta musikarekin alaituko dute. Abereei dagokienez, 6 espezie eta 13 arraza erakutsiko dituzte aurtan. Ekografia bitartez, interesa dutenek jakin ahal izango dute ardiren bat haurdun ote dagoen. Bestetik, aurtan ez da egonko nekazal makineriari buruzko erakusketarik. ■



Arabako produktuak dastatu eta erosi ahal izango dira azokan. ALEA

Osasuna aztergai

TEKNOLOGIA



LARRAITX AMADOZ

OREKA IT

Norvegiako aditu talde batek baieztatu du mugikorrek eta wifi-sareak seguruak direla osasunerako. Gobernuaren eskariz egindako ikerketaren emaitzek hori ondorioztatu dute; azterketan, aditu batzordeak aintzat hartu ditu maiztasun txikiko erradiazio elektromagnetikoa igortzen duten teknologia ohikoenak, hau da, telefono mugikorrak, wifi-sareak, mugikorraren antenak, ikus-entzunezkoen antenak eta beste komunikazio-tresnak. Horiek guztiek osasunean izan dezaketen eragina aztertzeaz gain, osasun-arriskuen kudeaketari eta araudiari buruzko aholkuak ere eman ditu batzordeak.

Batzordea, osasun zerbitzuetako eta garraio eta komunikazioetako zenbait adituk eta ikertzailek osatu dute, Jan Alexander Norvegiako Osasun Saileko zuzendari nagusiordeak zuzenduta.

Gai honen inguruko hainbat ikerketa egin dira orain arte, hala ere, Norvegiako adituek egindako azken azterketa hau sakonenetakoa eta berriena



PIXABAY

izan da. Aurretik egin diren beste ikerketek ondorioztatutakoa berretsi egin du azken azterketa honek ere: teknologia horiek osasunari kalte egiten diotela erakusten duen froga bakar bat ere ez dagoela egiaztatu dute.

Ikerketa gehienak erradiazioa minbizi-eragilea ote den ikusteko egin dira, eta pertsonetan, animalietan, zeluletan eta baita DNAn ere aztertu da maiztasun txikiko erradiazio elektromagnetikoak duen eragina. Ikerketa batzordeak ondorioztatu du ez dagoela esaterik tresna horiek

erabiltzeak minbizia izateko arriskua areagotzen duenik.

Azken urteotan mugikor erabilera izugarri handitu egin da, eta azterketa epidemiologikoez ez dute erakusten minbizi kasu gehiago dagoenik. Ikerketa hauetako batzuk oso luzeak dira (20 urtekoa da luzeena), eta beste batzuk haur eta gazteekin ere egin dituzte, eta inongo kasutan ez dute erlazioirik ikusi mugikorrek erabiltzearen eta minbiziaren artean.

Erradiazio eragina neurtzeaz gain, araudia ere aldagai gisa aztertu du aditu batzordeak. ICNIRPk (Erradiazio Ez-ionizatzailetik Babesteko Nazioarteko Batzordeak) ezarritako segurtasun-mugak nahikoak direla adierazi du ikerketak. Horretaz gain, teknologiek baimentzen dutena baino askoz ere potentzia txikiagoa erabiltzen dutela baieztatu dute adituek.

Horrenbestez, aditu batzordeak adierazi du maiztasun txikiko uhin elektromagnetikoa igortzen dituzten tresna teknologikoak seguruak direla. ■

Ba al dakizu nola gauzatuko duzun
lanaldiaren erregistroa?



oreka i.t.
corporate balance



945 067 219

Vitoria-Gasteiz (Araba)
orekait.com
orekait@orekait.com

INFORMA ZAITEZ GURE
ORDUTEGI KONTROLERAKO
SOLUZIOAREN INGURUAN

Odolkiak eta koñaka

GURE BAZTERRAK



Bergonda

Kuadrilla: Añana.

Udalerria: Lantarón.

Biztanleak: 72 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: XX. mendera arte Bergondako ihauterietan 'kakarroak' ateratzen ziren.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Bilbotik Burgosera A-2625 errepidearen 320. kilometroan dago Bergonda. Errepideek alderik alde banatzen dituzten Euskal Herriko beste ehunka herri bezala, oharkabean pasatzeko sortua egongo balitz bezala bizi da herria. Azken asteetan, ordean, bi pankartek erakartzen dute errepidetik igarotzen diren gidarien arreta: *Se mueren los pueblos* dio herriko zubiaren ondoan dagoen batek; *Queremos y necesitamos transporte a los pueblos* dio autobusbeltokiarene ondoan kokatutako beste batek. Eta markesin-pintada bat ere ikus daiteke, dagoneko ezabatu ez badute: *+buses-políticos*. Protestaren atzean daude inguruko herritarrak, susmoa baitzuten Arabako Foru Aldundiak herrira doazen autobusen zerbitzuak murriztu nahi zituela. Azkenean mehatxua ezertan

geratu da, baina pankartek eskegita jarraitzen dute, abisu bezala.

Bada, A-2625 errepidea baino lehen sortua da herria; hain zuzen, 913. urtean lehenbiziko aldiz ageri da agiritan; gainera, inguruan aurkitu dituzte Brontze eta Burdin aroko aztarnategiak eta Erdi Aroko nekropoli bat.

Gainera, 1978. urtera arte udal-herria osatu zuen Bergondak Salcedo herriarekin batera, baina urte horretan Lantarongo udal-herria batu ziren.

Ospe handia dute Bergondako hestekiek, eta batik bat odolostek, zerbaitengatik *odolkizale* da bertakoen ezizena. Bringas Etxekoek tradizio hori jaso eta mantendu dute azken urte luzeetan, eta odolkiak, txorizoak eta saltxitxoak egiten dituzte, artisau erara. Itzal handiko harategia da Bringas Añanako Kuadrilla osoan.

Gainera, XIX. mendean, Bergonda ezaguna egin zen bertako ardoen eta likorengatik, Baranbioko Andres Isasi Zuluetak amaren mahastiak hartu eta *Marques de Barambio* izeneko likoreen eta ardoen fabrika zabaldu baitzuen. 1898. urtean, Bergondako ardoa Kantauri isurialde osoan saltzen zuten, eta 1904. urtean hasi zen ere Isasi izeneko koñaka merkaturatzen. 1916an sute batek fabrika kiskali zuen.



Ezberdintasunak

EGILEA: URKIDE IKASTETXEA 4.A

Ezetz aurkitu marrazki hauen 5 desberdintasunak!
Zabaldu begiak!!



Hizki zopa

EGILEA: URKIDE IKASTETXEA 4.A

Salda honetan zenbait janari daude ezkutaturik. Gose al zara?

A	S	M	U	P	X	K	P	O	A	T	Z	A	G
K	R	S	A	G	A	R	R	A	O	K	U	Z	S
K	M	I	O	T	F	A	S	I	R	R	E	O	T
I	M	A	M	E	I	Z	K	R	B	Z	S	T	A
O	D	X	K	Z	Z	A	R	R	E	X	M	O	P
L	F	M	E	M	G	M	M	U	I	T	I	M	X
E	U	R	T	R	X	I	S	G	B	U	S	K	P
P	E	T	I	N	R	A	U	N	K	P	L	F	L
G	O	P	A	K	O	T	Z	A	B	A	D	T	M
D	F	I	L	K	N	R	E	P	N	T	B	F	A
Z	A	R	A	B	I	S	A	G	A	R	I	O	M
R	R	I	B	X	I	H	X	T	L	A	L	K	I
H	D	U	G	D	K	H	T	K	D	I	S	O	A
S	F	O	Z	O	L	A	U	M	H	K	X	G	K

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Hala Bedin afaria Bi lagunentzat

Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzat afaria zozkatuko du ALEAk, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Zozketan parte-hartzeko, eman izena uztailaren 23a baino lehen; hilaren 26ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Amets Zelaieta Rodriguez

Gasteiz

11 urte.

Argi azaltzen du kontua euskal esaerak: "Gogoko tokian, maldarik ez". Segi, beraz, nahi duzun horren aldeko borrokan, laztana. Etxekoen partez: matte-matte zaitugu!



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Uztailaren 19tik 25era

Euskararen agenda

MUSIKA

GOMETXA Eratu

Pikotako jaialdiaren barruan. Dr. Sax, Jodt, 4 Wheels, Eguzkifol eta beste hainbat talderekin.

Larunbata 20, 01:00etan, plazan.

AIARA Yogurina Borova

Zuhatzako jaien barruan.

Larunbata 20, 24:30ean, Zuhatzan.

MARIETA Lisker

Santa Marina jaien barruan.

Larunbata 20, 01:00etan, plazan.

GASTEIZ Euskal Herriko Gazte Orkestra

Igandea 21, 20:00etan, Principal antzokian.

GASTEIZ Joselu Anaiak

Santiago bezperako ekitaldien artean. *Asteazkena 24, 23:00etan, Plaza Berrian.*

LAUDIO Gauargi

Aretako jaien barruan.

Osteguna 25, 20:00etan, Aretan.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Bertso afaria

Alaia Martin eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.

Ostirala 19, 21:00etan, Arexolan.

HAURRAK

GASTEIZ Natur bisitaldiak

Hezeguneko ezkutuko biztanleak



ARGIA

GASTEIZ Euskal Sagardo Araba

Kuartango, Trebiñu eta Aramaioko sagardoak dastatu ahal izango dira, besteak beste, Euskal Sagardo Araba jaialdian. Mikel Garaizabal enologoaren eskutik, gainera, dastatze gidatua egiteko aukera izango da.

Larunbata 20, 12:00etatik aurrera, Aihotz plazan.

ezagutzeko bisitaldi gidatua. 5-10 urte bitartean.

Larunbata 20, 11:30ean, Ataria gunean.

ARTZINIEGA Komiki txikiak

Komikiak deskubritzeko saioa, haurrentzat.

Asteazkena 24, 12:00etan, liburutegian.

IKUS ENTZUN

GASTEIZ 'Tomboy' pelikula

Celine Sciammak zuzendutako pelikula. Zineleku programarekin elkarlanean eskainiko dute filma. *Igandea 21, 22:00etan, Falerinan.*

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Artium osorik' bisitaldia

Artium arte garaikideko zentro-museoko erakusketak eta museoa bera ezagutzeko bisitaldi gidatua. *Igandea 21, 11:30ean, Artiumen.*

Jimmyjazz
gasteiz

UZTAILA

Ar. 30

PROPAGANDHI
+ ADRENALIZED + LA ARMADA

IRAILA / URRIA / AZAROA

THE MOVEMENT + BUSTER SHUFFLE // ÄCHTUNG BABIES - U2 TRIBUTOA
SAUROM "UN VIAJE ÚNICO" // ESKORZO // THE CHRIS SLADE TIMELINE
ARETHA SOUL DIVAS & THE SILVERBACKS // EL RENO RENARDO
ROCKA FAMILIAN, RAMONES EZAGUTUZ // MORGAN
FRANK CARTER & THE RATTLESNAKES // LOS BARONES
ALEX CLAVERO // ILEGALES // EL DROGAS

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

uztailak **20** de julio

euskal sagardo araba Gasteizen



Goiza/Mañana 12:00-14:30 • Arratsaldea/Tarde 19:00-21:30

Aihotz Plaza / Plaza Machete

Euskal Sagardo dastatze gidatuak Mikel Garaizabalen eskutik
Catas guiadas de Euskal Sagardo, de la mano de Mikel Garaizabal

BERTAKO PRODUKTU
PINTXOAK, MUSIKA,
KONTZERTUAK...

PINCHOS DE
PRODUCTO LOCAL,
MÚSICA, CONCIERTOS...

• **KUARTANGO** Kuartango • **ITURRIETA** Aramaio • **TREBIÑU** Trebiño • **AKARREGI** Hernani
• **ALTZUETA** Hernani • **ITXASBURU** Hernani • **LIZEAGA** Astigarraga • **ZELAIA** Hernani



Santiagoko nekazaritza azoka

2019ko Uztailak **25** de Julio de 2019

Feria agrícola de Santiago

Campus de Álava UPV/EHU Arabako kampaia
Vitoria-Gasteiz

Pueblos para una Álava viva
Araba bizian, ezinbestekoak herriak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Universidad
del País Vasco

Euskar Herria
Libertasak

NAZIOARTETIKO
BIRKANTASUN
KAMPUSA
CAMPUS DE
EXCLUSIVA
INTERNACIONAL



Slow Food
Araba-Álava



FEDERACIÓN
DE SOCIEDADES
GASTRONÓMICAS
DE ÁLAVA
ARABAKO
GASTRONOMIA
ELIZATZEEN
FEDERAZIOA



Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

araba  álava
foru aldundia diputación foral